



**ADINEKOEN BATZORDE IRAUNKOR SEKTORIALA
COMISIÓN PERMANENTE SECTORIAL DE PERSONAS MAYORES**

2011-03-14ko OSOKO BILKURAREN AKTA

ACTA DEL PLENO DE 14-03-2011

DEIALDIA EGITEN DUENA:

Presidentea: Alfonso Gurpegui jauna.- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

BERTARATUAK:

Ángel Manero jauna.- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza.

Ana Tellería andrea.- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

Arantza Elizondo andrea.- Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

Maite Santamaría andrea.- Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea.

Juan Ramón Larrañaga jauna.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua.

Andoni Rekaorri jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila.

Amparo Maiztegui andrea.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta G. Zerbitzuen Saila.

Nerea Bengoetxea andrea.- EUDEL. Gamiz-Fikako Udala.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna.- Eusko Federpen (Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarten Lurralde Federazioa).

Antonio González jauna.- Las Cuatro Torres. Arabako Erretiratu, Pentsiodun eta Alargunen Probintzia Elkarte.

José Luis Elosua jauna.- Nagusilan Adin Nagusikoen Giza Boluntariotza.

José Ribiere jauna.- Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarte.

CONVOCA:

Presidente: D. Alfonso Gurpegui.- Director de Servicios Sociales del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

ASISTENTES:

D. Ángel Manero. Dirección de Servicios Sociales del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

Dña. Ana Tellería.- Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Dña. Arantza Elizondo.- Secretaria General de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

Dña. Maite Santamaría.- Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

D. Juan Ramón Larrañaga.- Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

D. Andoni Rekaorri.- Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

Dña. Amparo Maiztegui. Departamento de Política Social y Serv. Soc. de la Diputación Foral de Alava.

Dña. Nerea Bengoetxea.- EUDEL. Ayuntamiento de Gamiz-Fika.

D. José Manuel Odriozola Azurmendi.- Eusko Federpen (Federación Territorial de Asoc. Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco).

D. Antonio González.- Las Cuatro Torres. Asoc. Prov. de Jubilados, Pensionistas y Viudas de Alava.

D. José Luis Elosua.- Nagusilan Voluntariado Social de Mayores.

D. José Ribiere.- Asociación Guipuzcoana de Jubilados y Pensionistas.

Sabin Ipiña jauna.- Nagusiak Bizkaiko jubilatue eta pentsiodunen elkarteak.

José Ignacio del Pozo jauna.- Lares Euskadi.

Olatz Etxabe andrea.- EAEko Gizarte Laneko Diplomatuak eta G. Laguntzaileen Elkargo Ofizialak.

Begoña Frutos andrea.- Euskadiko Psikologoak Elkargo Ofizialak.

Begoña Pablos andrea.- Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

Virginia Lizarraga andrea.- Bizitzen fundazioa.

Jaime García Moreno jauna.- Aholkularitza Teknikoa.

GONBIDATUAK:

Mayte Sancho andrea.- Ingema.

Miguel Leturia jauna.- Ingema.

BERTARATU GABEAK:

Cándido Hernández jauna.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria.

Elena Elozegui andrea.- Osasun Saila.

Ignacio Rodríguez jauna.- Kultura Sailaren Gazteriatzako zuzendaria.

M^a Isabel Perea andrea.- Euskadiko Alzheimer Gaixoen Senideen Elkartearen Federazioa.

Lucía Linares andrea.- Aieratu Euskal Herriko emakume alargunen elkartearen federazioa.

Bilkura 2011ko martxoaren 14ko goizeko 11:00etan hasi da Gasteizen, eta honako hau izan da gai-zerrenda:

1. 2010eko azaroaren 29an egindako aurreko ohiko bilkuraren akta onartzea.
2. Monografikoa: Adinekoentzako Ekintza Plana (2011-2015).
 - Beste plan batzuk berrikustea.
 - Planaren diseinu orokorra: ildo nagusiak eta gaikako blokeak.
 - Lan Plana (eragile parte-hartzaileak zehaztea, jardun-egutegia...)
3. Galde-eskeak.

D. Sabin Ipiña.- Nagusiak Asociación de Jubilados y Pensionistas de Bizkaia.

D. José Ignacio del Pozo.- Lares Euskadi.

Dña. Olatz Etxabe.- Colegios Ofic. de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de la CAPV.

Dña. Begoña Frutos.- Colegios Oficiales de Psicólogos y psicólogas de Euskadi.

Dña. Begoña Pablos.- Consejo de Médicos de Euskadi.

Dña. Virginia Lizarraga.- Fundación Bizitzen.

D. Jaime García Moreno.- Asesoría Técnica.

PERSONAS INVITADAS:

Dña. Mayte Sancho.- Ingema.

D. Miguel Leturia.- Ingema.

AUSENTES:

D. Cándido Hernández.- Director de Innovación Educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Dña. Elena Elozegui.- Departamento de Sanidad.

D. Ignacio Rodríguez.- Director de Juventud del Departamento de Cultura.

Dña. M^a Isabel Perea.- Federación de Asociaciones de Familiares de Enfermos de Alzheimer de Euskadi.

Dña. Lucía Linares.- Federación de Viudas Aieratu de Euskal Herria.

La sesión dió comienzo a las 11:00 h. de la mañana del 14 de marzo de 2011, en Vitoria-Gasteiz, con el siguiente orden del día:

1. Aprobación del acta de la sesión ordinaria anterior celebrada el 29 de noviembre de 2010.
2. Monográfico: Plan de Acción para las Personas Mayores (2011-2015).
 - Revisión otros planes existentes.
 - Diseño general del Plan: líneas maestras y bloques temáticos.
 - Plan de Trabajo (concreción agentes intervinientes, calendario de actuaciones...)
3. Ruegos y preguntas.

1. puntua. 2010eko azaroaren 29an egindako aurreko ohiko bilkuraren akta onartzea.

Bertaratuek aho batez onartu dute akta.

2. puntua. Monografikoa: Adinekoentzako Ekintza Plana (2011-2015).

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako Alfonso Gurpegui jaunak adierazi du Batzorde hau adinekoentzako Ekintza Plana lantzen hasteko lana saioa izango dela. Plan horrek Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak eginiko honako bi azterlan hauetatik (Batzordearen aurreko bileran aurkeztutakoak) eratorritako konpromisoari erantzuten dio: “adinekoen bizi-baldintzei buruzko azterlana” eta “adinekoenganako tratu txarraren eraginari buruzko azterlana” Hasierako asmoa da plana uda baino lehen amaitzea.

Plan hori sail eta erakunde artekoa izatea lortu nahi da, ahal den neurrian bederen. Plana lantzeko, euskal administrazio publikoen parte-hartzeaz gain, adinekoen eremuan lan egiten duten askotariko eragileen eta adinekoen beraien parte-hartzea izango da. Eragile eta elkarte horietako asko batzorde honetan daude, baina plana lantzeko batzordean ez daudenak ere aintzat hartuko dira.

Plana idazteko Ingemaren (Matia Gerontologia Institutua) laguntza jasotzen jarraituko dugula adierazi du, bereziki Mayte Sancho eta Miguel Leturiaren laguntza, eta jarraian horiei eman die hitza, lantzeko metodologia-proposamena aurkez dezaten.

Mayte Sancho andreak proiektu horretan lan egiteko aukera eskertu du, hain zuzen ere, proiektu horren aurretiazko premisa prozesu parte-hartzailea izateko eta eztabaidara eta adostasunez sor daitezkeen aldaketetara irekita egoteko izaera delako.

Ingemako Miguel Leturia jaunak tokiko zein Estatuko eta nazioarteko planifikazio gerontologikoaren egungo egoera aurkeztu du, egungo politiken erreferentzia bat izateko, hain zuzen ere.

Adierazi du tokiko, lurraldeko, autonomia-erkidegoetako eta Europako plan asko daudela, askotariko planteamendu eta edukiekin, eta, beraz, zahartze-prozesuaren eta adineko biztanleriaren gaian erreferenteak direnak hartu beharko direla kontuan.

Alfonso Gurpegui jaunak aurkezpen-dokumentua denei bidaliko zaiela argi utzi ondoren, ekarpenak eta galderak egiteko aukera eman du.

Punto 1. Aprobación del acta de la sesión ordinaria anterior celebrada el 29 de noviembre de 2010.

El acta es aprobada favorablemente y de forma unánime por las personas asistentes.

Punto 2. Monográfico: Plan de Acción para las Personas Mayores (2011-2015).

D. Alfonso Gurpegui, Director de Servicios Sociales, señala que esta Comisión va a tener un carácter de sesión de trabajo de cara a poder lanzar la elaboración del Plan de Acción para las personas mayores. Este plan de deriva del compromiso adquirido de los dos estudios realizados desde la Dirección de Servicios Sociales y presentados en la anterior reunión de la comisión: el estudio sobre las condiciones de vida de las personas mayores y el estudio relativo a la incidencia del maltrato en las personas mayores. La idea inicial es tener este plan para antes del verano.

Este plan pretende tener carácter interdepartamental e interinstitucional en la medida de lo posible. Para su elaboración, además de con las administraciones públicas vascas, contará con la diversidad de agentes que trabajan en el ámbito de las personas mayores y con las propias personas mayores. Muchos de esos agentes y asociaciones están presentes en esta Comisión, pero también se contará para la elaboración del plan con aquellas que no lo estén.

Explica que para la redacción del Plan vamos a seguir contando con la ayuda de Ingema (Instituto Gerontológico Matía), particularmente con Mayte Sancho y Miguel Leturia, a quienes, seguidamente, da la palabra, para que procedan a la presentación de la propuesta metodológica de elaboración.

Dña Mayte Sancho agradece la oportunidad de trabajar en este proyecto, cuya premisa previa es su carácter de proceso participativo y su carácter de propuesta de trabajo abierta al debate, y a las modificaciones que por consenso puedan ir surgiendo.

D. Miguel Leturia de Ingema realiza una presentación de la situación actual en relación con la planificación gerontológica a nivel local, estatal e internacional que nos permita tener un referente de las políticas actuales.

Señala que hay una ingente cantidad de planes locales, territoriales, autonómicos, europeos... y con diversos planteamientos y contenidos, por lo que habrá que mirarse en aquellos que sean referentes en el proceso de envejecimiento y población mayor.

D. Alfonso Gurpegui aclara que se va a enviar a todas las personas el documento de presentación, y da paso a que se puedan hacer aportaciones y preguntas.

Bizitzen Fundazioko Virginia Lizarraga andreak adierazi du aurkezpenean ez direla zaintzaileak aipatu, Quebecen izan ezik. Gainerako planifikazioetan azaltzen ote diren galdetu du.

Miguel Leturia jaunak erantzun dio baietz, azaltzen direla, baina ez elementu komunetan; horregatik ez da argi ikusten aurkezpenean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuko J. Ramón Larrañaga jaunak esan du Zorroaren Dekretua lantzeko une honetan komeni dela ikuspegi hori txertatzea.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko Amparo Maiztegui andreak uste du dagoen egoeran eta hartu beharreko norabidean jarri dela arreta. Norabidearen arloan, funtsezkoa da, alde batetik, zorroa zehaztea, eta, bestetik, zorroaren, zorroa sortu duen legearen eta egingo den planaren arteko koherentzia izatea.

Eusko Federpeneko José M. Odriozola jaunak adierazi du bere ustez arazorik handiena adinekoen kolektiboa helburu politiko gisa eta politika espezifikoekin ez agertzea dela, eta berak hori espero duela plan horretatik. Bere iritziz, zorroan eta beste dokumentu batzuetan ez dira politika espezifikoak jasotzen.

Juan Ramón Larrañaga jaunak adierazi du ez datorrela bat politika espezifikoekin beharraren iritziarekin, eta uste du erantzuna pertsona guztiei eman behar zaiela, baina betiere adinekoen, gazteen edo beste taldeen behar eta berezitasunetan arreta jarritz.

Jose M. Odriozola jaunak eztabaida hori aspalditik datorrela eta jarrera desberdinak daudela dio. Ildo horretan, bere erakundearen ikuspuntua, adinekoentzako politika espezifikoekin aldea, beti irmoa izan dela azpimarratzen du.

Mayte Sancho andreak plana lantzeko metodologia-proposamen bat azaldu du, hain zuzen ere honako hauetan oinarritzen dena:

- Egungo dokumentazioaren azterketa (aurretik egindako azterlanak eta egungo araudia eta planifikazioa).
- Elkarrizketa sakonak.
- Batzorde honen esparruan egindako lana.

Era berean, taldean eztabaidatzeko xedearrekin, Planaren elementu nagusien inguruko proposamen bat azaldu du:

- Planaren egitura.
- Printzipioak eta irizpideak.
- Arloak eta ardatz tematikoak.

Dña. Virginia Lizarraga, de Fundación Bizitzen, señala que, excepto en Quebec, en la presentación no se han mencionado a las personas cuidadoras. Pregunta si aparecen en el resto de planificaciones.

D. Miguel Leturia responde que sí, que aparece pero no en los elementos comunes, y por eso no se ve claramente en la presentación.

D. J. Ramón Larrañaga, del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa, dice que es conveniente que en el momento actual de elaboración del Decreto de Cartera esté incorporado este enfoque.

Dña. Amparo Maiztegui, del Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Alava, valora que está muy bien centrado en que es lo que hay y hacia donde tendríamos que ir. Y en ese hacia donde es clave la concreción de la cartera y la coherencia entre ella, la ley de la que emana y el propio Plan que se elabore.

D. José Manuel Odriozola, de Eusko Federpen, destaca que el principal problema que ve es que el colectivo de mayores no aparece como objetivo político y con políticas específicas, que es lo que espera de este plan. Cree que tanto la cartera como otros documentos no recogen políticas específicas.

D. Juan Ramón Larrañaga, manifiesta que no comparte la necesidad de políticas específicas sino responder con recursos abiertos a todas las personas, pero atendiendo las diferentes necesidades y especificidades de mayores, jóvenes u otros.

D. José Manuel Odriozola, reconoce que éste es un viejo debate con diferentes posiciones pero que la posición de su entidad a favor de la necesidad de poner en marcha políticas específicas de mayores es firme.

Dña. Mayte Sancho pasa a exponer una propuesta metodológica para la elaboración del plan, basada en:

- Análisis de la documentación existente (estudios previos, normativa y planificación existente).
- Entrevistas en profundidad.
- Trabajo en el marco de esta Comisión.

Expone también, para el debate en grupo, una propuesta de los principales elementos del Plan:

- Estructura del Plan.
- Principios y criterios.
- Áreas y ejes temáticos.

Alfonso Gurpegui jaunak aurkezpena ere bertaraturako guztiei bidaliko zaiela gogorarazi ondoren, eztabaidari hasiera eman dio.

Lares Euskadiko José Ignacio del Pozo jaunak adierazi du hiru lurraldeen arteko lurralde-orekaren printzipioak nonbait azaldu behar duela (printzipioetan edo ardatzetan, ez dauka argi).

Amparo Maiztegui andreak lurralde-orekari dagokionez nabarmendu du errealitateak oso desberdinak direla eta “metodologiaz hitz egiten denean, hiriburuz gain udalerrri txikienak ere aintzat hartu behar direla”.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendari Alfonso Gurpegui jauna ados dago ekarpen horrekin; izan ere, landa-esparrua ahazteko joera dago.

Mayte Sancho andrea ere iritzi berekoa da eta, beraz, gai hori oso kontuan izateko konpromisoa hartu du. Gainera, oso aintzat hartu beharreko beste elementu bat gehitu du, hau da, genero-ikuspegia; batzuetan, emakumearen egoera ere ahazten delako.

Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko Arantza Elizondo andreak argi utzi nahi izan du genero-ikuspegia hartzea ez dela soilik adineko gehienak emakumeak direla kontuan hartzea, eta aurrera egin ahala ikusiko dela.

José M. Odriozola jaunak uste du 2. ardatza oso bloke osatua dela eta bertan alderdi asko biltzen direla, baina 1. ardatza filosofikoagoa eta garatzeko zailagoa dela uste du. Esan duenez, adinekoek nahi dutena eta behar dutena identifikatu behar da, baina kolektiboak ez dira homogeenak eta hori ere kontuan hartu behar da.

Virginia Lizarraga andreak bi gai azpimarratu ditu. Alde batetik, ikusten du komunikazioarekin eta gizartearen sentsibilizazioarekin zerikusia duten alderdiak falta direla. Eta, bestetik, denontzako (emakume zein gizon) gizarteaz ari bagara, bere buruari galdetzen dio bera non kokatuta ote dagoen bloke horietan, eta nola agertzen ote diren “oraindik adinekoak ez diren pertsonak”.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Andoni Rezagorri jaunaren iritzi, adinekoentzako politikek iraun behar dute, baina gizartearen gainerakoarekiko integrazioa ere garatu behar da, adinekoen zuzenduriko politikek gainerako herritarrekiko bereizketa sorraraz dezaketelako. Adinekoek beldurra dute egungo zenbait politika (murriztu beharrekoak) garatzeari utziko ote zaion.

D. Alfonso Gurpegui recuerda que esta presentación también se remitirá a las personas presentes, y abre un espacio abierto para el debate.

D. José Ignacio del Pozo, de Lares Euskadi, señala que no sabe si en los principios o en los ejes pero tiene que aparecer el principio de equilibrio territorial entre los tres territorios.

Dña. Amparo Maiztegui destaca que, respecto al equilibrio territorial, las realidades son muy diferentes y “*cuando habláis de la metodología conviene tener en cuenta no sólo a las capitales sino también a los municipios más pequeños*”.

D. Alfonso Gurpegui, Director de Servicios Sociales, está de acuerdo con esta aportación porque tiende a olvidarse en parte la realidad del ámbito rural.

Dña. Mayte Sancho opina en esa misma línea y, por tanto, se compromete a tenerlo muy en cuenta. Además, cita otro elemento clave a tener muy presente como es el enfoque de género, ya que también se olvida en ocasiones la situación de la Mujer.

Dña. Arantza Elizondo, de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer, dice que lo iremos viendo según avancemos, pero quiere dejar claro que el enfoque de género es más amplio que el simple hecho de que en su mayoría las personas mayores sean mujeres.

D. José M. Odriozola considera que el eje 2 es un bloque muy completo en el que encajan muchas cuestiones, pero el eje 1 lo ve más filosófico y más difícil de desarrollar. Dice que hay que identificar lo que quieren y necesitan las personas mayores, pero los colectivos no son homogéneos, y hay que tenerlo en cuenta.

Dña. Virginia Lizarraga incide en dos cuestiones. Por un lado, observa que que faltan aspectos relacionados con la comunicación y sensibilización a la sociedad. Y por otro lado, que si ahora hablamos de la sociedad para todos y todas, se pregunta dónde se ve en estos bloques y cómo aparecen “*las personas que aún no somos mayores*”.

D. Andoni Rezagorri, del Departamento de Acción Social de la Diputación F. de Bizkaia, cree que tienen que pervivir las políticas para mayores pero hay que desarrollar la integración con el resto de la sociedad, porque las políticas para mayores pueden generar una separación con el resto de la población. Existe un temor en las personas mayores de que se dejen hacer ciertas políticas actuales que hay que rebajar.

Ingemako Mayte Sancho andrearen iritziz, askotariko ikuspegiak izateak transizioaldi batean gaudela erakusten digu. Virginiaren zalantzari dagokionez, argitu du dagokigun planaren xede diren pertsonak ez direla adinekoak, baizik eta biztanleria osoa.

Proposatu du tratu txarren gaiari ekiteko moduari buruzko eztabaida hastea.

Alde batetik, galdetu du tratu txarren ikuspegia, tratu on baten alde lan egitearena edo aurreko bi ikuspegiak landu behar ote diren. Hau da, gaiari ikuspegi positibotik edo negatibotik ekin behar zaion.

Bestalde, planteatu du tratu txarrak bloke espezifiko eta bereizi batean bildu behar ote diren ala aurretik ikusitako ardatzetan txertatu.

Nagusilaneko José Luis Elosua jaunak uste du hobeto dela bereiztea eta bloke propioa osatzea. Gainera, adierazi du beharrezkoa dela etxean jasandako tratu txarrak eta egoitzetan jasandakoak bereiztea, eta tratu txar horiek detektatzearen garrantzia azpimarratu du.

Lares Euskadiko José Igancio del Pozo jaunak uste duenez, gauza bakoitzari bere izenaz deitu behar zaio, eta “tratu txar” terminoa erabiltzearen alde agertu da. Bereizitako bloke bat egiteko aukerari dagokionez, bere iritziz egokiagoa da bi bloke nagusietan txertatzea.

Arabako Foru Aldundiko Amparo Maiztegui andreak aitortu du ez daukala argi, baina, funtsean, tratu desagokiaz hitz egitea gustatzen zaiola, ikuspegi horrek ez baitu pertsona errudun bihurtzeko hain helburu nabaririk.

Mayte Sancho andreak komentatu du Frantzian ikuspegi positibotik egin dela, tratu egokiaren aldeko Plan gisa definituta.

Alfonso Gurpegui jaunaren iritziz *“ez da beharrezkoa gai hori orain erabakitzea, aurrerago ikusiko da”*. Bestalde, bereizitako bloke bat egiteak gai horren inguruko alarma-sentsazio handiegia sorraz dezakeela uste du, eta, beraz, aukera hori balioetsi beharra dago.

Virginia Lizarraga andreak galdetu du elkarrizketez eta Batzordearen kontraste-bilerez gain zer langune gehiago proposatuko diren.

Ingemako Mayte Sancho andreak adierazi du sakoneko elkarrizketak egin ondoren, zirriborro bat bidaliko dela Batzordean lantzeko, eta aurrerago balioetsiko dela zer langune sortu.

Dña. Mayte Sancho, de Ingema, opina que esta diversidad de visiones es una muestra de que estamos en un periodo de transición. Respecto a la duda de Virginia aclara que el sujeto de este plan no son sólo las personas mayores sino que es toda la población.

Propone entrar en el debate de cómo tratar el tema de los malos tratos.

Por un lado pregunta si el enfoque debe ser el de los malos tratos, el de trabajar por el buen trato o los dos enfoques anteriores. Es decir, si afrontarlo desde un enfoque en positivo o en negativo.

Y por otro lado plantea si los malos tratos deben ser un bloque específico diferenciado o incorporarlo a los dos ejes vistos anteriormente.

D. José Luis Elosua, de Nagusilan, opina que sería mejor separarlo y que tenga un bloque propio. Señala además la necesidad de separar el maltrato en domicilio y el de residencias; y destaca también la importancia de que aparezca la detección.

D. José Ignacio del Pozo, de Lares Euskadi, cree que hay que llamar a las cosas por su nombre y se decanta por utilizar el término maltrato. Respecto a lo de hacer un bloque diferenciado o no, opina que es mejor integrarlo en los dos bloques generales.

Dña. Amparo Maiztegui, de la Diputación Foral de Alava, reconoce que no lo tiene claro pero, en principio, le gusta hablar de trato inadecuado y le parece un enfoque menos culpabilizador de la persona.

Dña. Mayte Sancho comenta que en Francia se ha hecho con mirada positiva, definiéndolo como Plan a favor del buen trato.

D. Alfonso Gurpegui considera que *“no es necesario que hoy decidamos esto definitivamente y que lo iremos viendo”*. Opina que hacer un bloque diferenciado puede generar una sensación de alarma excesiva respecto a este tema, y que por tanto, hay que valorarlo.

Dña. Virginia Lizarraga, pregunta que más espacios de trabajo se van a proponer, además de las entrevistas y reuniones de contraste de la Comisión.

Dña. Mayte Sancho, de Ingema, indica que tras las entrevistas en profundidad se enviará un documento borrador para trabajarlo en la Comisión y posteriormente, ya se valorará que espacios generar.

Virginia Lizarraga andreak eskatu du bidalketa aldez aurretik egiteko (lantzeko denbora izateko moduan); aldi berean, eskatu du aurreko batzarraren ondoren erakundeek igorritako ekarpenak bidali ahal izatea.

Ingemako Miguel Leturiak, bertaratutakoei berariaz eskatu die bilera amaitu ondoren berarekin biltzeko, elkarrizketetarako hitzorduak zehatz daitezzen.

3. puntua. Galde-eskeak.

Bizitzen Fundazioko Virginia Lizarragak adierazi du zahartzearen inguruko woka-ren (Innobasquek sustatutakoa) ondorioak lortu berri direla eta interesgarria izan daitekeela ondorio horiek batzordeko kideei bidaltzea.

Idazkaritza teknikoak aipaturiko ondorio horiek eta bilkuran aurkeztutako gainerako dokumentazioa aste honetan bidaltzeko konpromisoa hartu du.

Bestelako izapiderik gabe, 13:30ean bilkura amaitutzat eman da.

IDAZKARIA
SECRETARÍA

Dña. Virginia Lizarraga pide que se haga el envío con anterioridad y con tiempo para trabajarlo, y solicita a su vez que se pueda enviar las aportaciones de las entidades remitidas tras la sesión anterior.

D. Miguel Leturia, de Ingema, pide expresamente a las personas presentes que se reúnan con él a la finalización de la reunión para la concreción de las citas para las entrevistas.

Punto 3. Ruegos y preguntas.

Dña. Virginia Lizarraga, de Fundación Bizitzen, cuenta que acaban de cerrarse las conclusiones del woka sobre envejecimiento impulsado desde Innobasque y que pudiera ser interesante enviarse a las y los miembros de la comisión.

La Secretaría técnica se compromete a ello durante esta semana junto con el resto de documentación vista en la sesión.

Sin más trámite, se da por finalizada la sesión a la 13:30 horas.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA
VºBº EL PRESIDENTE